

# 1. GAIA: IRITZI GENEROEN SARRERA

## 1.1 JATORRIA

A. ARISTOTELES (Grezia, K.a. 384 – K.a. 322)

Auditorio edo entzuleria zabal baten aurrean hitzaldi baten bitartez ideiak eta iritziak plazaratzeko arte edo teknikari **erretorika** deritzo. Aristotelesen ustez, filosofiaren zientzia osagarria da erretorika. Gizartean iritzi bat sortzea du xede, baina beti ere, egiaren bilatzea oinarri harturik. Hala, Aristotelesek sofistek (Antzinako Greziako jakintsuak) aintzat hartzen ez zuten dimentsio etikoa egotzi zion erretorikari; hots, Aristotelesen esanetan erretorika **egiaren** defentsa da, ez egiantz edo sinesgarritasunarena, iritzia gizalegez eta iruzur edo engainurik gabe eskaini behar da.

B. ZIZERON (Erroma, K.a. 106 – K.a. 43)

Besteak beste Aristotelesen oinarri filosofikoetan oinarrituz, Zizeronek Latindar Erretorikari buruzko *De inventione* liburua idatzi zuen. Erretorikari buruzko eskuliburu honetan eta bere beste idatzi batzuetan, diskurtsoaren faseak bereizi eta hizlari on batek izan beharreko gaitasunak azaldu zituen:

- *Inventio*: Errealitatetik puri-purian dauden auzi eta ideia nagusiak bereganatu eta, halaber, argudioak ere aurkitu.
- *Dispositio*: Auzi nagusia edo gaia egituratu, eta testuaren barne kohesioa lortu.
- *Elocutio*: Planifikatutako ideien idazkera garatu, islatu nahi den ikuspegia ahalik eta argien adierazi (formulazio estilistikoa).
- *Pronunciatio*: Hitzaldia eman auditorio batean.

Orotara, Zizeronek erretorikaren esparruan greziarrek egindako ekarpenak aintzat hartu eta sistematizatu zituen, izaera praktikodun teknika bilakaturik.

C. CHAÏM PERELMAN eta LUCIE OLBRECHST-TYTECA (Belgika, XX. mendea)

**Erretorika berriaren** sortzaileak izan ziren, argumentazioari buruzko XX. mendeko teoria nagusienetakoa. *Traité de l'argumentacion. La Nouvelle Rhétorique* (1958) liburua egin zuten elkarlanean. Erretorika berreskuratu eta moldatzeaz gain, argudiatzearen oinarriak ezarri zituzten. Hala, erretorikak **irakurlea** kontuan hartuko du (*keep readers in mind*) eta argudiatzea izango du oinarri.

Kontzeptu desberdinak definitu zituzten. Besteak beste, **auditorioa** izendatu zuten hizlariak bere argudiatzearen bitartez eragin nahi duen pertsona taldea. Horretarako, jende horrengan eragiteko, ezinbestekoak dira: a) hizkuntza komun bat, hizlaria auditorioarekin komunika dadin; eta b) entzuleriaren atxikimendua, auditoriaren onspena hizlaria entzuteko. Auditorioaren baitan sailkapen bat egin zuten, diskurtsoaren helburuen arabera:

- **Auditorio unibertsala**: Arrazoiaren jabe diren gizaki guztiek osatzen dute, eta *konbentzitzea* da xedea (pisuzko argudioak, datuak, estatistika...).
- **Auditorio partikularra**: Ekintza edo emaitza bat lortzeko *limurtzea* du xede (era guztietako argudioak, baita benetakoak ez direnak ere). Adib: hiritarraren bozka.

## 1.2 ARGUDIATZEA

Argudiatzearen helburu nagusia iritzi bat defendatzea eta hartzailea hartaz konbentzitzea da, horretarako arrazoibideak eta frogak erabilita. Argudiaketak bi alde ditu:

- **Pragmatikoa:** Argudio-testua enuntziatu bat baino ez da, non igorleak hartzaileari argudio edo arrazoi bat eskaintzen dion ondorioa onar dezan. Igorleak, mezu horren bidez, hartzailea konbentzitu nahi du, haren pentsamoldea aldatu edo modu jakin batean joka dezan bultzatu.
- **Egiturazkoa.** Argudiozko testu batean oinarrizko bi osagai azalduko dira:
  - *Tesia:* Gogoetagai zein argudiatzearen xede ere den oinarrizko ideia.
  - *Argudioaren gorputza:* Igorleak hartzailea konbentzitzeko erabilitako arrazoiak, argudioak

Argudiatzeak dituen oinarrizko bideak **frogapena** eta **limurtzea** dira. Frogapenean, gertakariak oinarri dituzten arrazoidun argudioak erabiltzen dira, eta limurtzean, aldiz, argudio afektiboak erabiltzen dira.

## **2. GAIA: EDITORIALA**

### **2.1 DEFINIZIOA**

Garrantzi berezia duen gertakari bat azaldu, baloratu eta epaitzen duen sinadurarik gabeko artikulua da **editoriala**. Egunkari bakoitzaren jarrera ideologikoa islatzen duen iritzia da, sinadurarik gabekoa. Hortaz, kazetaren ideologia definitzen duen horretan, editoriala kazetaren ahotsa da. Gertakariak labur azaldu, interpretatu (iritzia eman eta argudiatu) eta epaia ematen da oro har editorialetan.

### **2.2 AURREKARI HISTORIKOAK**

*The Washington Post* egunkariko Katharine Grahamn (1917-2001) kazetari eta editorearen iritiz, hasiera batean egunkariak alderdi politikoen ahotsa baino ez ziren. Baina 1835ean, *The New York Herald* kazetaren James Gordon Bennett editoreak adierazi zuen bere egunkariak ez zuela alderdi politikorik babestuko. Beste egunkari askok bere egin zuten printzipio hori eta enpresari handien ahots bilakatu ziren: Joseph Pulitzer (1847-1911), William Randolph Hearst (1863-1951)... Azken bi hauek, hain zuzen, prentsa inperio handienaren lehian aritu ziren bizitza osoan, sentsazionalismoaz baliatuz horretarako.

Hego Euskal Herrian, berriz, alde nabarmenak daude, testuinguru politikoaren ondorioz egunkariak lotura estua baitute alderdi politikoeekin: *Garak* ezker abertzalearekin, eta *Deia* eta *Noticias taldeak* EAJrekin, esaterako. *Vocento taldea*, aldiz, enpresa bat den heinean ezin daiteke esan alderdi jakin baten interesak defendatzen dituenik, nahiz eta bere ideologia duen (kontserbadorea eta Espainiar batasunaren aldekoa). *Berria* egunkariarena kasu bereziagoa da, ez baitu editorialik: estilo liburuan aipatzen dutenez, “egunkari zabala eta independentea izateko sortu zen, euskal komunitateko sentsibilitate guztiak kontuan hartzekotan sortu ere. Ezaugarri horiek bermatu eta pluraltasunaren alde egiteko konpromisoa du”, eta horregatik ikuspegi aniztasuna eta bereizkeriarik gabeko tratamendua ditu xede. Halere, ideologikoki, ezker abertzaletik hurbil dago.

### **2.3 EDITORIAL MOTAK**

Ez dago editorialak sailkatzeko modu bakar bat, eta gainera, gehienetan, editorialek estilo ezberdinak uztartzen dituzte euren baitan. Hona hemen, komunikazioan aditu ezberdinen sailkapen-proposamenak:

A. MAYNARD W. BROWN ETA GEORGE FOX MOTT (Luis Nuñez Ladevez)

- **Argitzailea:** Ez da iritzi zuzenik ondorioztatzen, soilik azaldu eta interpretatu egiten du.
- **Tesiduna edo iritziduna:** Defenditzen edo erasotzen den jarrera argi adierazten da. Argudiatzeaz gain, konpromiso bat eskatzen zaio irakurleari.

## B. RAUL RIVADENEIRA PRADA

- **Adierazpenezkoa:** Irudi objektibo bat aurkezten du
- **Azalpenezkoa:** Izaera ia pedagogikoa du, argudio bidez gertakari baten garrantzia ezartzen baitu.
- **Oldarkorra:** Jarrera ideologiko doktrinarioak darabiltza aldebakarreko azalpen bat oinarri harturik.
- **Kritikoa:** Iritzi publikoaren izenean epaitzen du eta inpartzial gisa aurkezten du bere burua.
- **Apologetikoa:** Propaganda izaera du eta gobernuaren aldeko organo ofizialista izan ohi da.
- **Ohartarazlea:** Akuilatu egiten du, arriskuen inguruan ohartarazi, adostasunera deitu (paternalista)
- **Iragarlea:** Egoerak analizatu ostean, emaitzak diagnostikatzerara ausartzen da.

## 2.4 EDITORIALAREN EZAUGARRIAK

### A. GAIAK

Editorialetan gaurkotasun handiko gaiak dira nagusi. Bereziki politika eta ekonomiarekin lotutako gaiak, baina azken sasoiaren eguneroko informazioarekin zerikusirik duten gizarte, kultur nahiz kirol arloko gaiak ere ageri dira, indarkeria matxista kasu. Lantzen diren gaiak ez dira berriak beti, baina, halakoetan, ñabardura edo ikuspegi berriak eskatzen dira.

### B. ESTILOA

Estilo neurtua, hizkera inbertsonala eta jarrera tinkoa erabiltzen da editorialetan. Erredaktorearen *niak* ez du lekurik, kazetaren iritzia islatzen baitu editorialak. Are gehiago, iritzi hori argi adierazten du. Horregatik, ideiak adierazteko orduan erredaktoreak ez du hain askatasun handia, editoriala kazetaren ahotza denez hartara egokitu behar duelako testua. Kazetak pentsatzen duena esateko konpromisoa du eta irakurleak orientazio baten beharra du.

## 2.5 EDITORIALAREN EGITURA

Titulazioari dagokionez, askea eta laburra behar du izan: edukiarekin bat etortzeaz gain, erakargarria behar du izan 3-5 hitzetan. Editorial batzuetan azpтитulu bat ere idatzi ohi da. Testuaren baitan, hiru bloke nagusi bereiz daitezke batik bat:

- 1) *Editorialaren abiapuntua:* Gaia eta testuingurua azaltzen dira, labur. Ez dugu xehetasunetan lardaskatu behar, albisteak ematen baitu horren berri.
- 2) *Interpretazioa:* Gaiaren inguruan kazetak berak duen iritzia ematen da, argudioak eskainiz.
- 3) *Epaia:* Paragrafo labur batean editorialaren ardatza nabarmentzen da, eta horrez gain epaia ematen da, hots, irtenbide bat ematen zaio eztabaidagai den auziari.

## 2.6 EDITORIALAREN FUNTZIOAK

Funtzio ezberdinak bete ditzake editorialak, betiere gaurkotasunarekin lotuta daudelarik. Lau lirateke editorialaren funtzio nagusiak:

- Gertakariak azaldu: eguneko gertakarien garrantzia
- Aurrekariak eskaini: testuinguru historikoa
- Etorkizunari buruz aurreikuspenak egin
- Iritzia eman

Editorialistak kontzientzia publikoaren zaintzaile dira, eta iritzi etikoak eskaintzen dituzte. Hori dela eta haien zeregin behinena gertaerak argitu, arazo konplexuak analizatu eta auzi ilunei argia ematea da.

## 2.7 EDITORIALISTAK

### A. TALDE EDITORIALA

- **Eredu estatubatarra:** Fisikoki banatzen ditu albiste saila eta orrialde editorialaren saila. Albiste eta iritzi saileko erredaktoreek banaturik lan egiten dutenez, baliteke desadostasunak edo inkoherentziak egotea elkarren artean. Sail editorialak berezko zuzendaria du eta editorialista talde bat, eta sail hau normalean kazetaren jabearen mende egon ohi da.
- **Eredu europarra:** Eredu honetan ez dago banaketa hain irmorik, albiste eta iritzi saileko erredaktoreak ez daude zurrin banatuta eta elkarri laguntzen diote. Sail editoriala eta albiste saila, biak, zuzendariaren mende daude, eta zuzendariak iritzi buruaren rola jokatzen duen kazetari baten babesa eduki lezake.

### B. KONTSEILU EDO BATZORDE EDITORIALA

Egunkari handi eta garrantzitsuenek mahai baten inguruan biltzen dituzte egunero editorialistak, iritzi saileko burua eta zuzendaria. Honen helburua eguneko gertakariei buruz iritziak elkartrukatzea da, eta editoriala idazten duen editorialistak aintzat hartu behar du erabakitakoa.

Erresuma Batuan eta AEBetan, kazeta talde handiek talde editorial bakarra dute egunkari guztientzat eta, hortaz, editorial berbera argitaratzen da. Honek xede bikoitza du: batetik ideologikoa (iritzi bakarria eskaintzea), eta bestetik ekonomikoa (soldata bakarria kobratzen duen espezialista taldea).

### C. EDITORIALISTAREN PRESTAKUNTZA

Iritzia zorrotz eta taxuz plazaratzeko, gaurkotasun handiko gertakarien berri izan behar du editorialistak, eta horretarako erredakzioko arduradunen babesa du. Normalean editorialistak ezagutza berezitua du alor jakin batean (ekonomia, politika, nazioartea, kultura...), eta informazio iturriekin ere harreman zuzena izan ohi du. Iritzi publikoaren sortzaile diren heinean, interes pertsonaletik aldentzen dituzten arau etikoak aintzat hartu behar lituzkete editorialistek. Gertakarien analisi orekatu bat eskaintzea da asmoa.

## 2.8 GLOSA

Glosak harreman estua du editorialarekin. Hainbeste, non aditu batzuen ustez (Bartolome Mostaza), editorial mota bat den. Gertakari bati buruzko iruzkin txiki bat da **glosa**, ohar baten modukoa da. Ezberdintasun nagusia zera da, glosean informatzeaz gain, baloratu eta epaitu ere egiten dela. Editorialak auzi nagusiak lantzen dituen bitartean, glosak hain garrantzitsuak ez diren gaiak jorratzen ditu bi paragrafotan edo bakar batean.

Glosaren ezaugarri nagusiak laburtasuna eta intentzioa dira. Orotara iritzi testu labur anonimoak izan ohi dira. Itzalean editorialista talde oso bat duten arren, editorialak legez glosak ere ez du sinadurarik izaten normalean, nahiz eta kasu batzuetan inzialak edo ezizenak erabiltzen diren. Estiloa editorialarena baino askeagoa eta ausartagoa da: esaldi laburrak, paragrafo motzak, hizkera xehea eta argia, eta sarri ironiaz zipriztindua. Beraz, egitura ez da editorialarena bezain zurrina: sinplea, eskematikoa kasik.

### **3. GAIA: IRITZI ARTIKULUA**

#### **3.1 DEFINIZIOA**

Bere edukiagatik edo eskaintzen duen ikuspegia dela eta interesgarri den gai bat oinarri duen testua da **iritzi artikulua**. Albistearekin oso lotura urrutikoa du, ez baitira gertaerak kontatzen, *epaitu* baizik, haien gainean argudiatuta. Editorialarekin ezberdintasun nabarietak: testua sinatu egiten da, luzeagoa da, askatasun handiagoa dago, tonua ez da hain irmoa, eta lehenengo pertsona singularra erabili daiteke.

#### **3.2 IRITZI ARTIKULUAREN EZAUGARRIAK**

- Ez du maiztasun finkorik
- Egunkariak berak gonbidatzen ditu artikulugileak
- Askotarikoak dira gaiak
- Estiloa: argia, arina, eta entretenigarria behar luke izan
- Albisteari estu-estu lotuta egon ez arren, gaurkotasuna mantentzen duten gertakariak ditu oinarri

#### **3.3 IRITZI ARTIKULUAREN EGITURA**

Titulazioari dagokionean, iritzi artikulua bateko tituluak laburra eta testuaren muina behar du izan. Testuaren zatian, hiru bloke bereizten dira:

- 1) Albiste edo gertakariaren *testuingurua*
- 2) Albiste edo gertakariaren *interpretazioa*: aurrekariak, gaiaren alde ezberdinen interpretazioa, balizko ondorioak, aldeko argudioen plazaratzea (kontrakoak ezeztatuz)
- 3) *Epaia*: ideia nagusiak bildu (laburbildu, ez errepikatu) eta epai moralala eman

#### **3.4 ARTIKULUGILEAK**

Artikulua dagoen testurik heterogeneoa den heinean, egileak ere arras ezberdinak dira, eta gaiak, estiloak eta jarrera ideologikoak askotarikoak dira. Artikulugileak normalean pentsalariak, idazleak, politikariak, unibertsitate irakasleak... izaten dira, eta haien **sinadura** da garrantzitsuena, ez gaia; artikulugilearen izenak eta estiloak kazetaren prestigioa indartzen dute (*El Pais*: Bernard Henri-Lévy; *The Independent*: Slavoj Žižek). Nolanahi ere, artikulua ez da sinadura handien aterpe soilik, kazeta bakoitzak bere kolaboratzaileak ditu (*El Pais*: Fernando Savater, Mario Vargas Llosa). Normalean, **kolaborazioak** dira.

#### **3.5 IRITZI ARTIKULUAREN MOTAK**

- **Saiakera**: Gai, egoera edo pertsonaia jakin bati buruzko idazki laburra da, eta modu oso askean egiten da gogoeta. Hedabideetan nagusiena den iritzi artikulua da. Gonzalo Martín Vivaldik dioen legez, edozeri buruz eta edozein tonutan idatz daiteke, hots, gai berberak (guda, gazteak, kutsadura) filosofikoki, zientifikoki edo ironikoki landu daitezke. Berez, labur eta kasik eskematikoki aurkeztutako dibulgazioko lana da. Testuak egilearen ondorioak biltzen ditu: ideiak, aurkikuntzak, hipotesiak.
- **Tribuna irekia**: Kazetak etxeak ez diren iritziei leku egiten die. Sarri, bere ildo ideologikotik at dauden iritziak dira. Hala, politika munduko zein gizarte esparruko ordezkari ezberdinei iritzia plazaratzeko aukera eskaintzen die. Normalean, puri-purian dauden gaurkotasun handiko gaiak dira eztabaidagai. Horregatik polemika moduko bat pizten da kolaboratzaileen artean, baina

kazetak ez du borroka horretan parte hartzen eta sinatzaile ezberdinei espazio bat ematera mugatzen da.

- **Artikulu kostunbrista:** Herrialde edo sasoi baten ohiturak erretratatzeko dituen artikulua da. Giza bizitzari buruzko ikuspegi kritikoa eman ohi du, umorez ziprztindurik gehienetan. XIX. mendean nobelak, antzerkiak eta kazetaritzan jazotako literatur mugimenduan du bere jatorria. Espainian ezagunak: Mariano Jose de Larra (ohitura sozialen kritika) eta Francisco Umbral idazlea.
- **Atzera begirako artikulua:** Dibulgazio historikoa xede duen artikulua bat da, funtsean: erreportajea eta ikerketa uztartzetik erdietsitako azpigenere berezia. Iruzkina kutsu handia du, ordea, eta normalean gaiari gaurkotatzen eskaintzen dion urteurren edo oroipen baiten ondorioz argitaratzen da.

## **4. GAIA: ARTIKULU IRUZKINA (ANALISIA)**

### **4.1 DEFINIZIOA**

Albistearen osagarri den artikulua bat da **artikulu iruzkina**. Izaera interpretatzailea duen eguneko gertakari esanguratsuenen azalpena da. Batik bat argudio testu bat da, albistearen testuingurua aurkezten duena. Azaldutako gertakariaren aurrekari zein balizko ondorioen inguruan egiten du gogoeta.

### **4.2 ARTIKULU IRUZKINAREN EGILEA**

Egilea normalean kazetari bat izaten da eta, gehienetan, ardura bat du erredakzioaren organigraman (sailburua, erredakzio burua...). Kazetari horrek informazio esparru bat menderatzen du eta gai jakin batzuen inguruan iritzia emateko gaitasuna du. Artikulu-iruzkinak sail ezberdinen barnean du bere lekua: Mundua, Euskal Herria, Kirola, Ekonomia, Kultura...

### **4.3 KALITATEAREN ISLA**

Egunkariak artikulu-iruzkinak egiteko erredakzioko kazetariak darabiltza: kazetaren beraren kalitatearen isla. Hala, bere kolaboratzaileek ez dute baldintzatzen iritziaren eremuan. Izan ere, sail guztietan iritzia taxuz eskaintzeko moduko kazetariak ditu. Artikulu iruzkinak kazetak bere editorialen, kolaboratzaileen nahiz zutabegileen bitartez eskaintako iritziaren osagarri dira.

### **4.4 ARTIKULU IRUZKINAREN EGITURA**

Artikulu iruzkinean titulua adierazkorra da eta jite baloratiboa du. Testuak, bere baitan, lau atal ditu:

- 1) Gaiaren planteamendu orokorra
- 2) Analisia atalka: gaiaren alde ezberdinak aletuz joan
- 3) Epaia: gaiari buruzko iritzi kritikoa
- 4) Irtenbidea: etorkizunera begira proposatutako irtenbidea.

Artikulu iruzkinaren ordena alda daiteke. Nolanahi ere, askatasun handia badago ere, oso garrantzitsuak dira testuaren hasiera eta bukaera: gertakaria eta bere ondorioa. Lehen paragrafoan irakurlearen arreta bereganatu eta irakurtzea bultzatu behar da (baieztapen biribil bat, gertakari erabakikor bat, sentimenduei zuzendutako dei bat, ateraldi ironiko bat...), eta azken paragrafoan esandakoaren laburpen, ondorio edo asmo nagusia bildu behar dira (auziaren muina islatzen duen epaia, ondorio logiko bat, iragarpen garrantzitsu bat).

#### 4.5 ARTIKULU IRUZKINAREN MOTAK

- Iruzkin politikoa: Mundu maila, Euskal Herri maila, tokian tokikoa
- Iruzkin ekonomikoa
- Kultura iruzkina
- Telebista iruzkina
- Burtsa iruzkina
- Kirol iruzkina
- Ikuskizunei buruzko iruzkina

### 5. GAIA: ZUTABEA

#### 5.1 DEFINIZIOA

Kolaboratzaile finko batek, kazetaria izan ala ez, maiztasun, kokapen eta hedadura jakinarekin argitaratzen duen iritzi testua da **zutabea**.

#### 5.2 ZUTABEAREN EZAUGARRIAK

Zutabearen irakurketa sinaduratik hasten da, *nork* idazten duen garrantzitsuagoa da *zer* idazten den baino. Beraz, zutabegileak erakartzen ditu irakurleak. Modu honetara konfiantzazko harremana sortzen da zutabegile eta irakurlearen artean, eta, gainera, batzuetan egileak bere bizitza intimoari buruzko pintzeladak sartzen dituzenez zutabearen, hurbiltasuna handitu egiten da.

Zutabea testu labur eta arina izan ohi da, baina askatasun handikoa da: eduki zein estilo aldetik oso librea da. Gaiak ere askotarikoak dira: gai esanguratsuak ez ezik, garrantzi eskasekoak ere dira hizpide. Nabarmen handiena zutebeetako aberastasun lexikoa da: erabilitako hizkuntza oso anitza (nahi izanez gero idazkera barrokua eta hotza nahas daitezke) eta koloretsua (metaforak, adjektiboak, admirazio ikurrak) da. Testuari laguntzeko tratamendu tipografiko berezia du (argazkia, lauki baten barnean...), eta erraz antzematen da kazetaren baitan, gainera, aldizkakotasun, kokapen eta hedadura jakin bat baititu.

#### 5.3 SINADURAREN PRESTIGIOA ETA IDEOLOGIAREN PISUA

Zutabe bat irakurtzerako orduan irakurleak sinadura handiak bilatzen ditu: idazleak, kazetari ezagunak... Garrantzitsua da **sinaduraren ospea**, baina hori ez da garrantzizko gauza bakara. Esaterako, kazetaren ildo ideologikotik at dauden zutabegileak izateak aberastu egiten du kazeta bera.

Zutabegileak bere ideiak islatzeko askatasun osoa du, eta zuzendariak, bere aldetik, kolaboratzaileak aukeratu edo haien kontratua eteteko askatasuna du. Modu honetara, nolabaiteko **koherentzia** bat dago kazetaren ildo ideologikoaren eta zutabegilearen gogoeten artean. Normalean kazeta eta zutabegilea bat datoz auzi nagusietan, haien jarrerak kontrajarriak badira irakurlea nahas dezaketelako. Hortaz, iritzi ezberdinek euren lekua duten arren, zutabe gehienek aintzat hartzen dute kazetaren ildo editoriala.

#### 5.4 ZUTABEAREN EGITURA

Zutabea askatasun handiko testua den heinean, tituluak adierazkorra eta irudimentsua behar du izan. Testuaren baitan, *hastapenaren ostean gaia landu* beharra dago, iritziaren azalpen sakonago bat eskainiz eta iritzi hori egiaztatuz. Hauen ostean *tesia* bildu behar du testuak, *amaiera* batekin borobildu orduko.

## 5.5 ZUTABE MOTAK

- **Zutabe pertsonala:** Sona handiko idazleei eskainitako zutabea izan ohi da: Anjel Lertxundi, Arturo Pérez-Reverte, Javier Marías, Walter Lippmann... Askatasun osoa dute nahi dutena idazteko.
- **Umorezko zutabea:** Umorea darabilten zutabeek bi xede nagusi dituzte: salaketa umorearen bidez (botere gehiegikeriak usu); eta irakurlearen enpatia erdiestea (umoreak intimitatea dakar).
- **Zutabe politikoa:** Politika da ardatz eta sinadura ezagunak.
- **Literatur kutsuko zutabea:** Literatur entsegu bilakatzen da. Gaiak askotarikoak dira eta zutabegileak aski ezagunak.
- **Gizarte zutabea:** Kronika arrosa eta txutxu-mutxuak dira nagusi. II. Mundu Gerra aurretik: handikien festak, ezkontzak... Oso urriak dira egun.
- **Bestelako zutabeak:** ekonomia, kirola, gastronomia, erlijioa...

## 6. GAIA: ZINEMA KRITIKA

### 6.1 DEFINIZIOA

Film jakin baten kalitatea epaitzen duen iritzi testua da **zinema kritika**. Kritikariak, pelikularen inguruko balorazioa eskaintzeaz gain, irakurlea orientatu behar du.

### 6.2 EGILE ZINEMAREN IRAULTZA

Zinema kritikak XX. mende hasieran hasi ziren argitaratzen, eta **publizitate** kutsua zuten. Hau da, filma laudatzera mugatzen ziren publizitate kutsuko zinema kritikak ziren.

Kritika klasikoaren aburuz film bat talde oso baten emaitza da: ekoizlea, zuzendaria, aktoreak, teknikariak... 1951n Frantzian sortutako **Cahiers du cinéma** aldizkariak, ostera, egile zinema aldarrikatu zuen: haien ustez zinema artea da eta, hortaz, zuzendaria da artista, egilea. Ekoizlearen agintearen aurka matxinatu ziren eta zuzendaria bihurtu zuten egile zinemaren oinarri. Aldizkariaren lehen zuzendaria eta arima bera Andre Bazin zinema kritikaria izan zen, eta zinema frantziarraren kritika gordina egiten zuten, literaturarekin lotura estuegia duela argudiatuz. Kazetak Renoir, Tati eta Melville goratzen zituen, baina artisautzat jotzen ziren baita ere Hitchcock, Hawks eta Ford.

Teoriatik praktikara salto eginez, 50eko hamarkada amaieratik aurrera **Cahiers du cinéma** aldizkariko kritikariak zinema egitera igaro ziren **Nouvelle Vague** zinema mugimenduari hasiera emanez. Mugimendu horretako izenik esanguratsuenak Françoise Truffaut, Jean-Luc Godard, Éric Rohmer eta Claude Chabrol dira, eta aipatzeko moduko film ezagun batzuk: *Los cuatrocientos golpes* (1959), *Al final de la escapada* (1960), *Mi noche con Maud* (1969) eta *Cleo de 5 a 7* (1962).

Egile zinema egungo zinema kritikaren oinarri bada ere, komeni da jarrera eklektiko bat izatea. Izan ere, filmaren egile gisa hartzen da zuzendaria gaur egun, baina ez da egile bakarra. Egile esanguratsuen izanik ere, gidoilari, argazki zuzendariari, musikagileari nahiz aktore taldeari ere euren meritua aitortu behar zaie. Zuzendariari ez zaio meritu guztia aitortu behar, filmeko gainerako langileek ere izan behar dute euren aitortza zinema kritikan.

### 6.3 KAZETARITZAKO ZINEMA KRITIKA ETA ZINEMA AKADEMIKOA



- **Kazetaritzako zinema kritika:** Kontsumora zuzendutako kritika da kritika mota hau. Hartzailea edo irakurlea zabala eta askotarikoa da, anitza, eta horregatik teknizismoei ez zaie lekuri ematen, denengana irisgarria izateko. Filma ikusi aurretik irakurria izan dadin dago pentsatua: soilik oinarritzko informazioa eskaintzen dio irakurleari, filma ikusi edo ez erabaki dezan. Spoilerrik ez da egin behar, beraz. Testua irakurterraza da, laburra eta arina.
- **Zinema kritika akademikoa:** Aldizkari berezietan argitaratutako kritika da. Zinemaz asko dakitenei zuzendua egon ohi da. Hori dela eta teknizismoak eta kontzeptu akademikoak erabiltzen dira, irakurlea gaian jantzia dagoela suposatzen baita, kazetaritzako zinema kritikan ez bezala. Testu luze eta sakonak izan ohi dira.

## 6.4 ZINEMA KRITIKARIA: BERTUTEAK ETA BEKATUAK

### A. BERTUTEAK

- *Prestakuntza:* Zinemaren historia ondo menderatzeaz gain, jakintza teoriko oparoa izatea eta film asko ere ikustea.
- *Ezagutza eguneratua:* Zinema joera berriak eta zinemagile garaikideak behar bezala ezagutzea.
- *Zintzotasuna:* Aurrez hausnartu eta ezarritako printzipioen arabera baloratzea, presioei aurre egin.
- *Adierazteko gaitasuna:* Irakurle xeheari gogoetak komunikatzeko gaitasuna.

### B. BEKATUAK

- *Ustelkeria:* Lagunen filmak laudatu eta arerioenak egurtzea. Kazetaren interesen aurrean men egitea. Ekoizleen dirua edo opariak jasotzea.
- *Handikeria eta harropuzkeria:* Zinemagileei errespetua galtzea eta laba behar bezala ez egitea.
- *Irudimenik eza:* Ezagutza teorikorik izan ez, eta azaleko testuak idaztea.
- *Aurreiritziak eta topikoak erruz erabiltzea:* Zinema komertziala gorrotatzea eta esperimentazio iruzurrak gorestea, kasu.
- *Hizkera ulergaitza:* Hizkera ulergarria ez bada, ezinezkoa izango da irakurlea informatu eta orientatzea. Irakurlearen zerbitzura dagoen testu bat da, ez ahaztu.

## 6.5 ZINEMA KRITIKAREN XEDE NAGUSIAK

- *Filmaren kalitatea epaitzea.* Filma interpretatu eta interesgarria den ala ez epaitu argudioekin.
- *Irakurlea orientatzea.* Zinema eskaintza oparoa den ezker, irakurleak aukeraketa egin behar du. Kritikariak haren hautaketa erraztea du helburu.
- *Hezte.* Film eta egile ezezagunak aurkezten dizkio irakurleari. Beste sorkuntza lanekin harremanak sortzen ditu eta sarri testuinguru historikoa lantzen du. Finean, artelana ulertzeko gakoak dakartzio irakurleari.
- *Entretenimendua.* Testuak entretenigarria behar du izan.

## 6.6 ZINEMA KRITIKAREN EZAUGARRIAK

Zinema kritika epai bat da, baloratu egiten du argudioak eskainiz. Beraz, sinatu egiten da, iritzi pertsonala denez egilea nor den jakiteak berebiziko garrantzia duelako. Argitaratzeko maiztasuna kazetaren arabera da: kazeta handietan astean behin egiten da batik bat (*El Paisen* ostiraletan kritika oro), eta

kazeta txikiagoetan astean bizpahiru aldiz (hala nola *Gara*, *Berria* edo *El Correo*). Testuak laburra, arina eta ulerterraza behar du izan, eta garrantzitsua da, gogoeta bat izan arren, erakargarria izatea.

## 6.7 ZINEMA KRITIKAREN EGITURA

- 1) *Titulua*: laburra eta irudimentsua, testuaren mamia islatu behar du
- 2) *Fitxa teknikoa*: filmaren izenburua / puntuazioa / zuzendaria / aktoreak / gidoia / argazkia / musika / herrialdea / generoa / iraupena / zinema aretoa
- 3) *Testua*:
  - Zuzendariaren zinemaren nondik norakoak azaldu
  - Aztertuko den filmaren argumentua labur-labur eman
  - Pelikulak dakarren mezua interpretatu:
    - Landutako gai nagusiak
    - Mezu nagusia islatzen duen eszenaren bat tartekatu
- 4) *Balorazioa*:
  - Filmaren alde onak eta txarrak adierazi
  - Aktoreen interpretazioak balioetsi
  - Epaia eman esaldi bakar ala bakan batzuetan

## 6.8 EUSKARAZKO ZINEMA KRITIKA

Euskarazko zinema kritikan hiru eredu nagusi dauzkagu:

- **Koldo Mitxelena** (*Egan* aldizkaria, 1954-1961). Ez du ez titulu ezta fitxa teknikorik idazten, gidoiaren esparrua lantzen du batik bat Mitxelenak. Kutsu intelektualarekin ironia darabil, eta literatura-erreferentzia askotaz baliatzen da.
- **Andres Gostin** (*Euskaldunon Egunkaria*, 90ko hamarkada). Gostinen kritika orok du titulu zein fitxa teknikoa. *Cahiers du Cinéma*ren eragina nabari zaio, eta gidoia eta eszenaratzea lantzen ditu gehien bat. Filmak dakarren gaiari buruzko gogoetak egitea du gogoko, eta zinema erreferentzia asko txertatzen ditu bere testuetan.
- **Gontzal Agote** (*Berria*, 2005-2019). Gostinek bezala Agotek ere kritika guztietan txertatzen du titulua eta fitxa teknikoa, eta Gostinen ildo beretik egile zinemaren eragina ere igartzen zaio eta zinema erreferentzia anitz egiten ditu. Halere, Agotek formari edukari baino garrantzi gehiago eskaintzen dio, eta testuinguru digitalaren baldintzak aztertzen ditu.

Eredu esanguratsuenak hauek izanik, euskarazko zinema kritikak bi erronka nagusi ditu: batetik, a) mugak apurto eta sarean garatzea; eta bestetik b) benetako zinema kritikaren aldarria egitea.

## 7. GAIA: IRITZI KRONOLOGIKOA

### 7.1 UMOREA ETA IRITZIA

Iritzia ez da bakarrik testuen bidez ematen, irudien edo ilustrazioen bidez ere isla daiteke. *El Pais*ek esaterako, kazetako binetak iritzi gisa ulertzen ditu. Horregatik, **iritzi kronologikoak** iritzi sailaren orrialdeetan aurki ei dira, sarritan editorialaren edo egunkariaren jarrera ideologikoa islatzen duten iritzi artikuluen ondoan. Irudi hauek gaurkotasan handiko auzi politikoei buruzko iritziak islatzen dute, batzuetan hitz bakan batzuen laguntzaz, eta beste batzuetan hitzik gabe.

Umorea erabili ala ez, ilustrazioek gai jakin bati buruzko iritzia ematen dute. Zenbaitetan, umore arrastorik ere ez dago ilustrazioetan. Hastapenetan umore grafikoa ihesbidekoa zen, baina nolana ere, denborak aurrera egin ahala, kutsu kritikoa bereganatzen hasi zen umorea, dimentsio politikoa bereganatuz.

## 7.2 JATORRIA

1841ean Britania Handian sortutako **Punch** aldizkari ilustratuaren zintak eredu bilakatu ziren. Urte batzuk geroago, **The Yellow Kid** (1895-1898) zintak arrakasta handia erdietsi zuen AEBtan. Azken zinta hau Richard F. Ocault marrazkilariarena zen, eta lehian zeuden *New York World* (Joseph Pulitzer) eta *New York Journal* (W. Randolph Hearst) kazetetan, bietan, argitaratu zen. *The New York Press* kazetak kazetaritza horia terminoa erabili zuen aipatutako bi egunkari horien kazetaritza sentsazionalista izendatzeko.

1905ean *New York Herald* egunkarian **Little Nemo** zinta argitaratu zen estreinakoz. Winsor McCay egilearen zinta hauek apurtzaileak izan ziren, ametsen mundua irudikatzen baitzuen eta, aditu askoren iritziz, surrealismoarekin ere harremana duten zintak baitziren. Kolorez argitaratzen ziren asteburuetan eta oso ikusgarriak ziren, hain zuzen ere, *art nouveau* (modernismo) mugimendua inspirazio iturri zutelako.

1929ko crackaren ondorioz, aldaketa esanguratsua bizi izan zuen zintak: kutsu soziala eta izaera artistikoa galdu zituen, eta entretenimendu huts bilakatu zen. Hala, 30 eta 40ko hamarkadetan abenturazko zintak izan ziren nagusi: Alex Raymond-en *Flash Gordon* eta Harold Fosterren *Tarzan eta Printze Ausarta*, kasu.

Urte batzuk geroago, 1964an Argentinako *Primera Plana* aldizkarian lehen aldiz **Mafalda** zinta agertu zen, Quino umoregile grafikoarena. Urtebete geroago *El Mundo* egunkarian ere plazaratu zen, eta honen ostean *Siete días ilustrados* aldizkarian (1968-1973) ere argitaratu zen. Zinta idealista, bakezale eta feminista hau latinoamerikako gazte aurrerakoien isla da, bai eta 60ko hamarraldiko kezka sozial eta politikoen adierazle argia.

## 7.3 IRITZI IKONOGRAFIKOAK ETA ADIERAZPEN ASKATASUNA

### A. HERBLOCK ETA VIETNAMGO AUZIA

Gai politikorik esanguratsuenetan kazeta eta marrazkilaria bat datoz normalean, baina, dena dela, egunkariak betiere askatasuna eskaini behar dio marrazkilariari. Herbert Lawrence Block (1909-2001), esaterako, *The Washington Post* egunkariko marrazkilaria izan zen urte luzez eta gehien bat Vietnamgo auziari buruz marraztu zuen. Liskarra zegoen guneetan egoten zen, eta bere ilustrazioekin hiru *Pulitzer Sari* eskuratu zituen. Herblocken esanetan, “karikatura umore hutsetik harago doa, iritzi bat adierazteko modua da”, eta bere zintak, hain zuzen ere, ez ziren batere objektiboak. Bere iritzia bortizki irudikatzen zuen obretan, baina horregatik ez zuen kazetako bere lekua galdu.

### B. THE NEW YORK TIMES ETA IRITZI IKONOGRAFIKOA

2019ko uztailaz geroztik, *The New York Times* egunkari esanguratsuak ez du zinta politikorik argitaratzen *iritzia* sailean. Aisiara, tokiko informaziora eta asteburuko sialetara mugatu ditu ilustrazioak. Erabakia, hein handi batean, Antonio Moreira Antunes marrazkilari portugaldarraren zinta batek eragin zuen, non AEBetako Donald Trump presidentea ageri den, itsu eta kippa jantzita, Israelgo lehen ministro Benjamin Netanyahu-ren aurpegia du txakur bat duelarik gidari.

AEBetako gizartearen parte batek antisemitatzat jo zuen ilustrazioa eta kazetak barkamena eskatu zuen. Egunkariak, iaz bineta editorialen sailean *Pulitzer Saria* bereganatu zuen arren, Patrick Chappate eta Heng Kim Song marrazkilariak kaleratu eta *iritzi* sailetik kendu ditu binetak. Adierazpen askatasuna kinka larrian?

## 7.4 ZINTA EGILEAREN ZEREGINAK

- *Gaurkotasuna ardatz*, albisteen jarraipen zehatza egin eta eguneko gaiak aukeratu. Komeni da erredakzioko kazetariekin hitz egitea informazioaren xehetasunak jasotzeko. Tamalez, egun marrazkilaria gehienek etxetik egiten dute lan, erredakziotik at. Horrek eragina du emaitzan, usu.
- *Gai bakarra hartu eta zirriborroak egin*. Gai zerrenda murriztu eta bat hautatu. Ondoren, aipatu gaiaren ikuspegi ezberdinak landu zirriborroak eginez.
- *Argitasuna, ideiak egoki adierazi*. Lantzen duen gaiaren sintesia eskaini behar du. Horretarako, marrazteko errazena den ideia hartu behar da, irakurleak berak egokien ulertuko duena.

## 7.5 IKONOGRAFO ESANGURATSU BATZUK

### A. MUNDUKO ZINTA EGILE ESANGUTSUENETAKO BATZUK

- Plantu (*Le Monde*)
- Chappatte (*The New York Times*)
- Tom Toles (*The Buffalo News* eta *The Washington Post*)
- Ben Jennings (*The Guardian*)

### B. EGUNKARIETAKO MARRAZKILARIAK

- Zugazart (*Gara*)
- Argote (*Deia*)
- Zulet (*El Correo*)
- Forges (*El Pais*)
- Gallego & Rey (*El Mundo*)
- Puebla (*ABC*)
- Cain (*La Razón*)
- Oroz (*Diario de Navarra*)

## 8. GAIA: LITERATUR KRITIKA

### 8.1 DEFINIZIOA

Literatur lanen eduki zein formak ikertzeko proposatutako metodoa da **literatur kritika**. Kazetariak ez du liburuaren analisi sakona egiten inolaz ere, bere xede nagusia irakurleari literatur lan jakin bati buruz informazioa, balorazioa eta orientazioa eskaintzea da.

### 8.2 LITERATUR KRITIKA: LITERATURA ETA KAZETARITZA

#### A. KAZETARITZA BERRIA

Kazetaritza Berria 60ko hamarkadan sortu zen AEBtan. Mugimenduaren ordezkariarik ezagunena Tom Wolfe idazle eta kazetari estatubatuarra da, kazetaritza idazkeran literatur moldeak txertatzen ahalegindu zena. Kazetaritza Berriaren ezaugarriak ikerketa, errealismo handia, lehen pertsonaren erabilera, deskribapen zehatzak, ironia... dira batik bat, hainbat literatur baliabiderek uztartuz. Wolfez gain, hauek lirateke ordezkariarik ezagunenak: Truman Capote, Norman Mailer, Gay Talese, Rex Reed, Hunter S. Thompson, Joan Didion eta Terry Southern.

## B. KAZETARITZA BERRIA LATINOAMERIKAN

Rodolfo Walsh argentinarrak gertakari bati buruzko liburu bat idatzi zuen literatura baliabideak erabiliz, Truman Capotek *Odol Hotzean* (1966) idatzi baino ia hamarraldi bat lehenago. Hain zuzen ere, 1956an diktaduraren aurkako altxamendu bat izan zen Argentinan eta porrot egin zuen, hamabi pertsona atxilotu eta bost fusilatu zituztelarik. Walshek kasua ikertu eta *Operación Masacre* (1957) liburuaren bitartez bertsio ofiziala gezurtatu zuen. Boom latinoamerikarra izan zen, kazetaritza berriaren akuilu. Liburua 60ko hamarraldian jazotzen da eta Latinoamerikako literatura irauli egiten du, literatura abangoardista, formalki berritzailea eta izaera politikoa handikoa baita.

Kazetaritza berri latinoamerikarraren helburu behinena injustiziak salatzea da, kazetaritza independente eta konprometitua da. Hala, objektibotasuna ez da xede, ahulenen alde jartzen baita. Egunerokotasuneko istorio xumeak dira nagusi kazetaritza testuetan, eta testu hauetan literatur teknikak eta ikerketak garrantzi handia lortzen dute. Idazlerik esanguratsuenak: Gabriel García Márquez, Julio Cortázar, Mario Vargas Llosa eta Carlos Fuentes.

## C. GABRIEL GARCÍA MÁRQUEZ

García Márquez (1927-2014) idazle eta kazetari kolonbiarra izan zen, 1982an Literaturako Nobel Sariaren irabazlea. Ezkertiarra zen, Fidel Castroren lagun mina, eta berak egin zuen ezagun **errealismo magikoa**: mugimendu literario eta piktorikoa, estilismo zaindua darabilena ezohiko gertakizunak arruntak balira legez irudikatzen. Hain zuzen ere, bere obra ezagunena den *Cien años de soledad* (1967) liburua da mugimenduaren ordezkari behinena. Aipatutakoaz gain, *Crónica de una muerte anunciada* (1981) eta *El amor en los tiempos del cólera* (1986) dira bere obra literario ezagunenak.

Zuzenbide ikasketak egin zituen arren, kazetaritzan murgildu zen oso gazte zela. Hainbat egunkaritan lan egin zuen eta ehunka erreportaje, kronika eta zutabe idatzi zituen bere bizitzan zehar. Hastapenetan, zinema kritika ere egin zuen *El espectador* kazetan. 90ko hamarkadan *Fundación Nuevo Periodismo Iberoamericano* diru asmorik gabeko fundazioa sortu zuen, hango kazetaritza sustatu eta babesteko. Bere kazetaritza lanik esanguratsuenak *Relato de un naufragio* (1970) eta *Noticia de un secuestro* (1996) dira.

## 8.3 LITERATUR KRITIKAREN EGITURA

- 1) *Titulua*: Laburra, irudimentsua eta kritikaren mamia dakarrena.
- 2) *Fitxa*: izenburua / idazlea / argitaletxea / urtea / orrialde kopurua
- 3) *Testua*:
  - *Egilea*: belaunaldi edo literatur mugimendu batean kokatu; aurreko idazlanekiko harremanik ote duen zehaztu; bere literatur eraginak nabarmendu
  - *Argumentua*: istorioaren hari nagusia eman
  - *Narrazioa*:
  - *Egitura*: lineala, flashback modukoa, ikuspegi anitzekoa
  - *Pertsonaiak*: biribilak (bilakaeradunak) edo lauak
  - *Interpretazioa*: narrazioak bere baitan dakartzan gai nagusiak interpretatu
  - *Balorazioa*: epaia eman, argudioak eskainiz

## 8.4 LITERATUR KRITIKAREN ESTILOA

Literatur kritikako testua sinplea da, hitz ulerterrazak darabiltza, esaldi eta paragrafo laburrak, eta teknizismorik gabeko idazkera. Hortaz, estilo argia darabil, irakurterraza baina jaso. Dena dela, literatura hizpide denez gero, literatur erreferentziak eta baliabideak ere erabil daitezke.

## 8.5 LITERATUR KRITIKA: IDATZI AURREKO URRATSAK

- 1) *Dokumentazioa*: Liburua irakurri aurretik egileari buruzko datuak bildu, haren aurreko lanak zeintzuk izan ziren ezagutu, liburuan lantzen den gai berbera duten besteak aintzat hartu...
- 2) *Liburu osoa irakurri*: Irakurri ahala, paragrafoak azpimarratu gero erabiltzeko.
- 3) *Eskema*: Puntu garrantzitsuak zeintzuk diren erabaki eta zirriborro bat egin.
- 4) *Testuaren erredakzioa*: Aipatu urrats guztiak eman ondoren, testua idatzi.

## 9. GAIA: IRAKURLEAREN IRITZIA

### 9.1 ZUZENDARIARI GUTUNAK

#### A. IRAKURLEA ETA KAZETA

Iritziaren monopolioa egunkariak berak duen arren, irakurleak parte hartzeko aukera du **zuzendariari gutunak** atalaren bidez. Iritzi sailean kokatu ohi da atal hau, eta testuak laburra behar du izan (adib: *Berrian* 1400 karaktere). Kazetak gutunak ez argitaratzeko eta testua mozteko eskubidea du. Argitaratu ahal izateko, idazleak argi esan behar du nor den: izen-abizenak, herria eta nortasun agiria.

Atal honen bidez, irakurleak bere iritzia plazaratzeko aukera du. Bereziki, gaurkotasunezko auziei buruz duen ikuspuntua dakar bertan. Atal hau oinarri harturik, egunkari bakoitzak duen irakurle mota ezagut daiteke. Sekzio honetan idazten duten irakurle guztiak ez dira anonimoak: *The Times* kazetan, kasu, Winston Churchill, Bernard Shaw edo Aldous Huxley bezalako pertsona ezagunen iritzia argitaratu dira.

#### B. ATALAREN GARRANTZIA

Atal honek berebiziko garrantzia du, batik bat adierazpen askatasunaren isla delako. Ez alferrik, iritzi saileko atalik irakurriena da. Irakurlearentzat gai interesgarrienak zeintzuk diren jakiteko modua da, kazetak egindako okerrak zuzentzeko aukera ematen du, eta irakurleen arteko eztabaida sustatzen du.

Hori bai, lehen esan bezala atal honetan ez dira irakurleen gutun guztiak argitaratzen. Kazetak aukeraketa bat egiten du eta, neurri handi batean, bere ildo ideologikoarekin bat datozei ematen die lehentasuna.

### 9.2 IRAKURLEAREN DEFENDATZAILEA (ombudsman)

#### A. JATORRIA

1916an Suedian prentsaren lehen **ombudsman**a sortu zen, Prentsa Kontseiluaren parte zen kargu publiko bat, alegia. Sei urte geroago, 1922an, Japoniako *Asahi Shimbun* kazetak egunkariaren egituraren bertan sortu zuen irakurlearen defendatzailea. AEBetan, berriz, 1997an agertu zen *news ombudsman* kargua estreinakoz, *Courier Journal* eta *The Louisville Times* egunkarietan. Espainian *El Paisen* sortu zen 1985ean.

#### B. EGINKIZUNAK

Irakurlearen defendatzaileak kazetaren edukiari buruz irakurleak adierazten dituen kexak eta iradokizunak aintzat hartzen ditu, eta hauei erantzun egiten die astero edo bi astean behin argitaratzen den testu baten bitartez. Gainera, kazetak bere buruari eman dizkion jarraibide etikoak bete daitezzen ahalegintzen da.

### C. TESTUAREN EDUKIA ETA EGITURA

Kazetak argitaratu eta irakurleak zalantzan jarritako edukiari buruz aritzen da labur-labur irakurlearen defendatzailea lehen-lehenik. Segidan, irakurlearen argudioak dakartza. Auzitan jarritako testuaren erredaktoreen iritzia eskaintzen du jarraian, eta, beharrezkoa bada, sailburuarena edo zuzendaritzarena. Alde guztien iritzia jaso ostean, bere ondorio propioak eskaintzen ditu.

### D. HELBURUAK

Irakurlearen defendatzaileak zenbait gauza zaindu behar ditu:

- Informazioaren eta iritziaren bereiztea
- Informazio zorrotz eta independentea
- Kazetariaren zintzotasuna
- Intimitatearen babesa
- Erantzuteko eskubidea
- Akatsen zuzenketa azkarra
- Arraza, erlijio eta sexu diskriminazioarekin harremandutako oro saihestea

### C. THE NEW YORK TIMESEK ERAGINDAKO KRISIA

2017an *The New York Times* egunkariak irakurlearen defendatzailearen kargua kendu zuen enpresaren organigramatik, eta kazetari zein irakurleekin harremanetan dabilen koordinatzaile batengatik ordezkatu zuen. Hala, *Reader Center* atala sortu zuen. Horren ondorioz, beste kazeta askok bide bertsua jarraitu zuten. Egunkari esanguratsuetan ari diren irakurlearen defendatzaile gehienek kazetaren jarrera salatu zuten, *The Guardian* egunkariko Paul Chadwickek, kasu.

## 9.3 SAREAK ESKAINTZEN DITUEN AUKERAK

Kazetaritza digitalak irakurlearen parte hartzeko gaitasuna areagotu du, gutunetatik harago. Hasiera batean albisteei buruz iritzia emateko aukera eman zitzaion irakurleari, baina honek alde txar dezente zekartzan: gutxiengo batek hartzen du parte soilik, eta gehienetan eztabaidaren kalitatea nahikoa eskasa da, irainak izanik iruzkin gehienak. Azken sasoiari, ordea, parte hartzeko beste hainbat aukera daude:

- **Pertsonaia ezagun bat elkarrizketatzea:** Normalean elkarrizketaren aurretik galderak bidaltzea eskatzen zaio irakurleari.
- **Irakurleen blogak:** Zenbait kazetek beren bertsio digitalean irakurle jakin batzuei euren *bloga* izateko aukera eskaini diete, non egile bakoitzak gai ezberdin bat lantzen duen. Adibidez, *lavanguardia.com* orrialdean Ivan Martinez de Miguelek telesailei buruz zuen *bloga*.
- **Lehiaketak:** Kazetek lehiaketak antolatzen dituzte sarearen bidez. Esaterako, *La Vanguardia* egunkariak Rosalia abeslariak Bartzelonan eskainitako kontzerturako sarrera bat lortu ahal izateko, lehiaketa bat jarri zuen abian.

- **Aholkuak:** Era guztietako aholkuak ematen dituzten adituak daude: sexua, osasuna, lorezaintza, ekonomia... Adibez, *La Vanguardia* kazetan Nuria Jorbak irakurleek sexuaren inguruan dituzten zalantzak argitzen ditu.
- **Inkestak:** Irakurleen parte hartzea sustatzeaz gain, auzi jakin batzuei buruz jendarteak duen iritzia ezagutzeko parada ematen du.